PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

HORNIDURA-KONTRATUA

Prozedura irekia

Xedea: "Ibilgailu hibrido entxufagarri bat hornitzea SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziari, errentamendu-erregimenean, mantentze-lanak eta asegurua (renting) barne"

Espediente-zk.: 2025006

1. SARRERA

SPRI – ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA (aurrerantzean, "**SPRI**"), Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia-sustapenaren politikarako tresna gisa jardutea du xede.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, bere helburuak lortze aldera, honako eskumen hauek ditu:

a) Sustapen-plan eta -programen diseinua eta exekuzioa bultzatzea alor hauetan: industria- eta enpresa-jarduera, industria-arloko inbertsioa, garapena, dibertsifikazioa eta lehiakortasuna, berrikuntza, nazioartekotzea, informazioaren eta jakintzaren gizartearen garapena eta enpresa-ekintzailetzaren sustapena.
b) Atzerriko industria-inbertsioa sustatzea, balio erantsi handia duten eta enplegua sortzen duten proiektu bultzatzaileetan.
c) Berrindustrializatzeko edo industria-arloan jardunak egiteko premia berezia duten Euskal Autonomia Erkidegoko eremuetan, industriaren sustapena eta antolamendua bultzatzea, beste erakunde eskudun batzuekin lankidetzan.
d) Egoeraren araberako zailtasun koiunturalak dituzten enpresei dagokienez, jarduteko programak eta proposamenak prestatzea, eta enpresa horiei bultzada ematea, lanpostuak eta industria-jarduera lehiakorra mantentze aldera.
e) Euskal enpresak nazioartekotzeko laguntza-sistema publikoa bultzatu eta sendotzea, eta euskal enpresei atzerrian ezartzeko sostengua ematea.
f) Azpiegitura fisikoak eta ingurune teknologikoak sustatzea, industria-proiektuen kokapena eta lehia-garapen egokia ahalbidetzeko.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Preskripzio Teknikoen Agiri honen xedea da SPRIk SUV Coupé motako ibilgailu hibrido entxufagarria kontratatzeko baldintzak ezartzea, errentamendu-erregimenean, mantentze-lanak eta asegurua (renting) barne. Ibilgailuaren mota, errentamendu-baldintzak eta ezaugarri teknikoak jarraian jasoko dira.

Ibilgailuak zirkulatzeko egoera onean egon behar du, alde funtzionalean nahiz administratiboan, eta gastu guztiak (matrikulazio-gastuak barne) eta ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zergaren urteko kuota barne egongo dira, baimenduta dauden langileek modu arrunt eta legezkoan gida dezaten.

Ibilgailu hori SPRIren bulegoetan entregatu beharko da, kontratua formalizatu eta hurrengo egun baliodunetik zenbatzen hasita beranduenez 120 eguneko epean (aurrerantzean, "**Entregatzeko Gehieneko Epea**"), dokumentazio guztia egunean duela (jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak), aseguru-polizak eta primaren ordainagiriak barne. Ondore horietarako, ez dira onartuko izapidetzen ari diren dokumentuen frogagiriak.

Kontratatutako kilometro-kopurua guztira 120.000 kilometrokoa izango da, eta urtean 30.000 km/urteko batez besteko kilometro-kopurua ezarriko da.

3. IBILGAILUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Errentamenduaren xede den ibilgailuak honako gutxieneko ezaugarri tekniko hauek izan beharko ditu:

- **Ibilgailu-mota:**

  5 plaza eta 5 ateko SUV Coupé motako ibilgailua.

- **Kolorea.**

  Margo metalizatua

- **Neurriak:**

  Gutxieneko zabalera, atzeraispiluak barne: 2,10 metro

  Gutxieneko altuera: 1,65 metro

  Ibilgailuaren gutxieneko luzera: 4,6 metro

  Maletategiaren gutxieneko edukiera: 450 litro

- **Motor-mota:**

  Hibrido entxufagarria

  275 CV-ko gutxieneko potentzia konbinatua

  Trakzio integrala

- **Aldagailua**

  Aldagailu automatikoa

- **Kontsumoa eta emisioak (WLTPren arabera)**

  30.000 km/urteko batez besteko kilometro-kopurua

  0 motako ingurumen-etiketa

  Gutxienez 60 km-ko autonomia % 100 elektrikoa

  2 l/100 km baino gutxiagoko WLTP kontsumo konbinatua

  40 gr/100 km baino gutxiagoko WLTP CO2 emisioak

- **Gutxieneko ekipamendua**

  Erreia nahi gabe aldatu izanaren alerta

  Aurreko, alboetako eta bururako airbag-sistemak

  Telefonoarentzako haririk gabeko kargalekua

  Aginte-taula digital eta konfiguragarria

  3. motako kargatzeko kablea, 22 kw-ko karga publikorako (CA)

CEE 230 watt-ko entxufe industriala

4. HORNIDURARAKO BALDINTZA OROKORRAK

Ibilgailua kontratatzeko modua errentamendu-erregimena izango da, mantentze-lanak eta asegurua (renting) barne.

Agiri honetan guztira bat (1) ibilgailu kontratatuko da, SUV Coupé motakoa, 5 plazakoa, hibrido entxufagarria.

Egikaritze-epea berrogeita zortzi (48) hilekoa izango da; epe hori ibilgailua benetan SPRIri entregatzen zaionetik hasiko da zenbatzen. Entrega kontratua formalizatu eta hurrengo egun baliodunetik zenbatzen hasita 120 eguneko epean egin beharko da. Era berean, kontratatutako kilometro-kopurua guztira 120.000 kilometrokoa izango da, eta urtean 30.000 km/urteko batez besteko kilometro-kopurua ezarriko da.

4.1 Harremanak eta jakinarazpenak

Adjudikaziodunak bitartekari baten datuak emango ditu; bitartekariak telefono bidez eta mezu elektroniko bidez artatuko ditu jakinarazpenak eta behar diren gainerako gorabeherak.

4.2 Istripuak eta ezbeharrak

Ezbeharra egonez gero, errentatzaileak ibilgailuaren eta konponketaren ardura hartuko du bere gain. SPRIk berehala jakinaraziko du gorabehera, baita egokitzat jotako kudeaketa guztiak egin ahal izateko behar diren datuak eta informazioa ere. Era berean, ibilgailua ibilgetuta geratzen bada, ibilgailua errentatzaileak adierazitako lantegira eta gidariak etxera eramateko kudeaketak egin beharko ditu, eta hori guztia errentatzaileak kontratatutako aseguruaren kontura egongo da.

4.3 Ordezkapen-ibilgailua

Edozein arrazoi dela-eta (matxura, prebentziozko eta zuzentzeko mantentze-lanak, matxuren konponketak, ostea, etab.) errentamenduan emandako ibilgailua ezin bada erabili 48 orduz edo denbora luzeagoan, errentatzaileak SPRIren esku jarriko du ordezkapen-ibilgailua, eskatutako ibilgailuaren berdinak edo antzekoak diren ezaugarriak izango dituena, Preskripzio Teknikoen Agiri honetan ezarritako kontratazio-baldintza berdinetan. Beranduenez, ibilgailua erabiltzaileari entregatu beharko zaio ibilgailua ibilgetu ondorengo hirugarren egun baliodunean.

Ordezkapen-ibilgailuaren bilketa adjudikaziodunaren kargura egingo da.

Ibilgailuaren erabateko ezbeharra badago, errentatzaileak SPRIren eskura jarri beharko du ezaugarri eta ekipamendu berdineko ibilgailu berria, Preskripzio Teknikoen Agiri honetan ezarritako eta lizitazio honetan eskainitako baldintza berdinetan, beranduenez ibilgailuaren erabateko ezbeharra deklaratzen denetik 120 eguneko epean. Kasu horretan, **Entregatzeko Gehieneko Epe berria** hasiko da. Istripuarengatik jasotako kalte-ordainak eta ibilgailuaren hondarrak adjudikaziodunarenak izango dira, eta SPRIk ordezkapen-ibilgailua erabiltzen jarraituko du.

Erabateko ezbeharra deklaratu eta ibilgailu berria entregatu bitartean, kontratatutakoaren antzeko ezaugarriak dituen ibilgailua SPRIren eskura jarriko da; hala ere, horrek ez du ekarriko eskainitako prezioaren gaineko kosturik, eta ezingo da kontratua lehenago azkendu.

4.4. Mantentze-lanak

Atal honetan lizitazioaren xede den ibilgailuaren mantentze-lana adierazten da, kontratuaren indarraldirako.

Mantentze-lan integralaren zerbitzuak barne hartuko ditu aldizkako arauzko berrikuspenak, konponketa mekanikoak, baita erabileraren edo detektatutako narriaduraren ondoriozko txapa eta pinturaren konponketak ere, bai aldizkako berrikuspenetan bai ibilgailuaren erabileran zehar. Horretaz gain, lanen barne pneumatikoak konpondu edo ordezkatuko dira, eta zulo baten ostean gurpilak orekatu eta lerrokatu ere.

Kontzeptu horren barne daude renting-aren bizitza baliagarrian zehar sor litezkeen elektromekanikako eta karrozeriako zuzenketa-mota oro. Markak ibilgailuko mantentze-liburuan zehazten dituen aldizkako berrikuspenak egingo dira, eta, hala badagokio, IATko aldizkako berrikuspenak ere.

Laburbilduz, jarraian mantentze-lan integralen prestazioan eman beharreko zerbitzuak adierazi dira:

- Ibilgailuak behar dituen mantentze- eta konponketa-behar guztietarako zerbitzua. Mantentze-lanen eta konponketaren kontzeptuan ibilgailuko elementu guztiak eta ordezko pieza guztiak sartzen dira. Markaren jatorrizkoak izango dira.

- Bateria ordezkatzea % 70tik beherako errendimendua badu.

- Eskulana

- Labaingarriak

Proposamen ekonomikoaren barne, enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu gastu hauek: mantentze-lanetatik, konponketatik eta piezak ordezkatzetik eratorritako kudeaketa eta kostua; olioa, labaingarriak, likidoak aldatzea edo betetzea barne; ordezko piezak; eskulana; txapa eta pintura; IAT aurreko lanak eta IATa; eta eratorritako gastu guztiak. Gastu guzti horiek enpresa adjudikaziodunaren proposamen ekonomikoaren parte gisa hartuko dira.

Lan horiek guztiak ibilgailuaren fabrikatzailearen jarraibideei jarraikiz egingo dira.

Oro har, enpresa adjudikazioduna lan hauez arduratuko da:

- ✓ Akats teknikoen edo ibilgailuaren erabilera eta higaduraren ondoriozko edozein elementu edo osagai mekanikoren konponketak (piezak eta eskulana).
- ✓ Matxuren konponketa (piezak eta eskulana).
- ✓ Fabrikatzaileak adierazitako aldizkako berrikuspenak lizitazioko ibilgailu guztietan.
- ✓ Istripuen ondoriozko kalteak, dagokion aseguru-konpainiarekin kontratatutako estaldura-baldintzen barne badaude.

Aurreko paragrafoetan deskribatutako zerbitzu oro **Bizkaiko Lurralde Historikoko fabrikatzailearen sare ofiziala** osatzen duten lantegietan eman beharko da.

Aldatu beharreko ordezko pieza guztiak markaren jatorrizkoak izango dira.

Ibilgailuak funtzionatzeko erregaia ez da sartzen.

4.5 Asegurua

Kontratuaren adjudikaziodunak ibilgailua aseguru-polizarekin eman beharko du, behar bezala sinatuta eta indarrean. Adjudikazioduna aseguruaren titularra izango da.

Errentamenduan emandako ibilgailua estaliko duen poliza arrisku orotako asegurua izango da, prima itxiko frankiziarik gabe eta baliagarria Europar Batasuneko herrialde guztietan.

Ezingo dira hasierako polizaren baldintzak aldatu, eta edozein aldaketa egotekotan, SPRIren aldez aurreko baimena izan beharko da.

Hauek izango dira estalduraren eta gutxieneko kontzeptuen zenbatekoak:

- ✓ Derrigorrezko harpidetzako erantzukizun zibila.
- ✓ Borondatezko erantzukizun zibila, 50 milioi euro artekoa.
- ✓ Ibilgailuan eta osagarrietan izandako kalteak.
- ✓ Talken ondoriozko kalteak.
- ✓ Gidaria eta bidaiariak.
- ✓ Kalteen erreklamazioa eta defentsa.
- ✓ Heriotza – 45.000,00 €
- ✓ Ezintasun iraunkor osoa – 45.000,00 €
- ✓ Ezintasun iraunkor partziala – 45.000,00 €
- ✓ Ibilgailua lapurtzea
- ✓ Ibilgailuak su hartzea
- ✓ Kristalak eta haizetakoak haustea
- ✓ Asistentzia errepidean 24 orduz, 0 kilometrotik.
- ✓ Isunak kudeatzea.
- ✓ Atoian eramatea, mugarik gabe.

4.6 Pneumatikoak

Kontratuaren indarraldian zehar pneumatikoen aldaketa mugagabea sartzen da erabileragatik (errodatze-banda), narriaduragatik edo istripuz apurtzeagatik aldatu behar direnean.

- "*All seasons*" pneumatikoak. Ordezkatze mugagabea 35.000 kilometro arte eta/edo errodatze-banda 3 mm baino txikiagoa denean.

Horrez gain, pneumatikoak orekatzea eta lerrokatzea ere barne sartuko da.

4.7 Isunak kudeatzea

Jar litezkeen isun edo zehapenen aurrean, honela jardungo da:

- Adjudikazioduna jasotako isunak ordaintzeaz arduratuko da. Halaber, gaizki mantentzeagatik ibilgailua egoera txarrean edukitzearen ondoriozko isunak ordaintzeaz arduratuko da. Horrez gain, autoaren egoeragatik, administrazio-agiriengatik edo indarrean dagoen legediak ezarritako berrikuspenak ez egiteagatik jarritako isunak ere ordainduko ditu.

- Errentariak ibilgailua gidatzetik eratorritako isun guztiak ordainduko ditu.

4.8 Kilometro-kopurua eta fakturazioa

Adjudikaziodunak eskainitako azken prezioaren hainbanaketaren ondoriozko hileko faktura bidaliko du, baita errentamenduak iraundako hilabete guztiena ere.

Fakturak erakunde kontratugileari bidaliko zaizkio, hilabetea amaitzea, kontratuan adierazitako helbide elektronikora.

Kontratuaren prezioa 120.000 kilometroren gainean kalkulatuko da. Kalkulatzen da urtean 30.000 km egingo direla batez beste, ibilgailua entregatzen den unetik 48 hilabeteko epean.

Kontratatutako kilometro-kopurua guztira 120.000 kilometrokoa izango da, eta urtean 30.000 km/urte-ko batezbesteko kilometro-kopurua ezarriko da.

- **<u>Doikuntza-prezioa:</u>**

  Renting-kontratua amaitzean, prezioaren doikuntza egingo da, egindako kilometroen aldeagatik, bai gehiago bai gutxiago izan, kontratatutako 120.000 kilometroen gainean. Honela ordainduko da:

  - Kilometro-kopurua altuagoa izango balitz, SPRIk 0,035 euro/km-ko zenbateko finkoa ordainduko du (BEZa kanpo).

  - Kilometro-kopurua txikiagoa izango balitz, enpresa adjudikaziodunak 0,035 euro/km-ko zenbateko finkoa ordainduko du (BEZa kanpo).

SPRIk edo enpresa adjudikaziodunak aurreko atalean zehaztutakoaren arabera ordaindu beharreko zenbatekoa ezingo da, inolaz ere, eskainitako azken prezioaren % 15 baino gehiago izan, BEZa kanpo. Hori guztia egindako gehiegizko edo soberako kilometro kopurua gorabehera, kontratatutako 120.000 kilometroei dagokionez. Erregularizazioa (likidazioa) ibilgailua itzuli eta hurrengo hamar eguneko epean egingo da, kontratua amaitu ostean.

4.9 Zerbitzu Ofizialak

Preskripzio teknikoen agirian deskribatutako jarduketa guztiak, aurreko puntuetakoak, emandako ibilgailuko Zerbitzu Ofizialek (Lantegi Ofizialek) egingo dituzte, Bizkaiko Lurralde Historikoan kokatutakoak.

4.10 Zigorrak

Enpresa kontratugileak berak onartutako justifikazioa egon ezean, SPRIk honako zehapen hauek ezarri ahalko dizkio kontratistari:

(i) Preskripzio teknikoen agiri honetan ibilgailua **Entregatzeko Gehieneko Epea** atzeratzen bada (hau da, kontratua formalizatu osteko 120 eguneko epean, edo, hala badagokio, kontratistak epe txikiagoa eskaintzen badu, 120 eguneko gehieneko epeari eskainitako beherapena aplikatuz geratzen den epean), adjudikaziodunak honako hauetako bat aukeratu ahalko du egun horretatik aurrera: **(i)** SPRIri aldi baterako eskatutako ibilgailuaren antzeko ezaugarri tekniko eta funtzionalak edo berdinak dituen ordezkapen-ibilgailua doan entregatzea, irekitako Entregatzeko Gehieneko Epea amaitzen denetik ibilgailua benetan zerbitzuan jartzen den arte; edo **(ii)** atzeratutako egun bakoitzeko eskainitako azken prezioaren (BEZa barne) % 0,1aren baliokidea den zehapena ordaintzea.

(ii) Ibilgailua entregatzeko **atzerapenak** aurreko atalean deskribatutako **Entregatzeko Gehieneko Epea bukatu eta hurrengo 30 egunak igaro ondoren jarraitzen badu**, SPRIk, gainera, kontratua suntsiaraztea erabaki ahalko du.

Zigortutako adjudikaziodunak, zigorra atal honetan adierazitako baldintzetan ordaintzeaz gain, zigorra eragin duten ez-betetzeen edo atzerapenen betebeharrak bete beharko ditu.

Zigorren zenbatekoa ordaintzeke dauden zenbatekoetatik edo kontratistak ordaindutako bermetik kenduko dira.

5. KONTROLA ETA JARRAIPENA

SPRIk kontratuaren arduradun bat izendatuko du, eta bera izango da kontratuaren indarraldian zehar adjudikaziodunarekin harremanetan jarriko dena, baita adjudikaziodunak emandako zerbitzuak agiri honetan adierazitako baldintzetan betetzen direla egiaztatu eta baliozkotuko duena.

Hauek izango dira kontratuaren arduradunaren eginkizun nagusiak:

- Adjudikaziodunarekin harremanetan jarriko den solaskide bakarra izatea (beste bat izendatzen denean salbu).
- Agirietan jasotako klausulak eta kontratuan ezarritako gainerako xedapenak interpretatzea.
- Adjudikaziodunak ematen dituen zerbitzuak ikuskatzea eta baliozkotzea.

Halaber, adjudikaziodunak ere zerbitzuko koordinatzaile/arduradun bat izendatu beharko du, SPRIk izendatutako kontratuko arduradunarekin harremanetan jar dadin.

6. ZERBITZUA EMATEA

Enpresa adjudikaziodunak beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak emango ditu aurreikusitako jarduerak egiteko, eta horiek behar bezala egiteaz arduratuko da. Langileak adjudikaziodunaren mende egongo dira soilik, eta honek bere kargura dituen langileen lan eta Gizarte Segurantza arloan indarrean diren eskakizunak bete beharko ditu, baita laneko arriskuak prebenitzekoak eta zerga arlokoak ere.

Erakunde kontratatzailea ez da inolaz ere kontratatutako langileen enplegatzailea izango, ez norbere kontura ez adjudikatzailearen kontura ari direnena, zerbitzuak zeharka edo zuzenean eman arren.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak langileei beren betebeharretarako beharrezko tresnak emango dizkie.

Zerbitzuak emateko beharrezko gastu guztiak eskainitako prezioen barne daude (hau da, Bilboko erakunde kontratatzaileko bulego nagusietara mezulariek egiten dituzten desplazamenduetatik eratorritako gastuak, garraio-gastuak eta abar ez dira bereiz egotziko).

Adjudikaziodunak erakunde kontratatzailearen esku jarri beharko du eskatutako agiri oro, zerbitzuak behar bezala eskaintzeko beharrezkoak edo komenigarriak izan badira.